



ISABEL LAMBERTI NEW DIRECTORS

## “Filmei paisaiak balira bezala begiratzen diet”

SERGIO BASURKO

Isabel Lamberti Alemanian jaio baina txikitán Espainiara joan zen bizitzera, eta gero Herbeheretara. Egun, tulipanen herrialdea eta Madril artean bizi da, nahiz eta gehienetan jaialdi jaialdi han-hemenka dabilen. Amsterdamen eta New Yorken zinema-ikasketak burutu ahala, dokumentalak zuzenduz ekin zion jardunari, eta ikasi bitartean gero eta gehiago garatu zuen bere estilo pertsonala, errealtate eta fikzio arteko zinema mistoa eginez. Zenbait labor egin ondoren, dagoeneko postprodukzio-fasean dagoen lehen film luzeari ekin dio. Nolanahi ere, Donostiara zuzendari berrien lanak epaitzera etorri da.

“Epaimahaian talde polita bildu gara, baina oraindik nor den nor ezagutzen ari gara. Esperientzia oso aberasgarria izaten ari da. Gainera, hiru emakume gara bi gizonezkoen aldean eta oraingo geuk daramagu ahots kantaria. Denak oso pertsona azkarrak dira eta pisuzko argudioak

ematen badizkirate ez dut iritziz aldatzeko arazorik izango”, komentatu digu bere epaimahaikideen gainean.

“Ongi dakit zein zaila den lehen film luze bat egitea, beraz, ez dut perfekzioa bilatzen; talentua, originaltasuna eta potentziala bilatzen ditut egile berriengan. Haiena bezala nire ahotsa hasiberri batena da eta enpatia sentitzen dut haiengan, baina horrek ez du esan nahi kritikoa izan ezin naitekeenik”, erabat sinetsita adierazi du.

“Filmei paisaiak izango balira bezala begiratzen diet, inolako aurreiritzirik gabe. Horixe baita, izan ere, nire sormen-prozesuaren abiapuntua. Hasieran, erraietaraino iristen zaidan paisaia batean fijaszen naiz, eta hortik abiatuta istorioa eta pertsonaiak garatzen ditut”. Isabelen lehen film luzea etxebizitzak egiteko suntsitzen ari diren Madrilgo Cañada Real-en kokatzen da, bizileku izan duten parajeari agur esaten ari diren ijito komunitatearen inguruan. “Hain ditut maite, nire ijito familia deitzen die-dala”, amaitu du esaten.



ALEX ABRIL

### In search of landscapes

Director Isabel Lamberti was born in Germany, but grew up in Spain and then the Netherlands. Her shorts have won awards at festivals around the world and she's currently in San Sebastián to form part of the New Directors Jury. She says that when she goes to the cinema it's usually without any pre-conceived ideas and she just lets herself be carried away by the film. Her own films are a hybrid somewhere between documentary and fiction in which she focuses more on creating poetic worlds and painting landscapes from which the narrative and characters emerge. Once she's completed her feature debut which is currently in post-production, she'd like to make her next film in the Basque Country as she finds there's something really dramatic about the landscape compared to the monotony of the Dutch countryside.



CINE DESARROLLO SOSTENIBILIDAD

